

CAMBRIDGEKO UNIBERTSITATEKO CLARE HALL-EN IKERTZAILE BISITARI IZATEKO LAGUNTZAREN DEIALDIA

Xedea

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak deialdia egin du laguntza bat emateko Cambridgeko Unibertsitateko Clare Hall-en ikertzaile batek egonaldia egin dezan.

Diziplinak:

- Fisika
- Biologia zelularra eta molekularra
- Arteak (giza zientziak, gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak)

Iraupena:

Egonaldiaren iraupena 12 hilekoa da, eta 2017ko urrian hasiko da. Hala ere, hautagaiek 6 hileko egonaldiak ere aukeratu ahal izango dituzte.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- a. Euskal Autonomia Erkidegoan behintzat urtebetez bizi izana 2016ko urtarrilaren 1ean. Hala ere, antzinatasun bera izanik, atzerrian bizi direnen eskabideak ere onartuko dira, baldin eta atzerrian bizi diren espainiarren erroldaren (AEE) bidez Euskal Autonomia Erkidegoan auzotasuna badute eta atzerrian bizi aurreko azken auzotasuna Euskadin izan bada.
- b. Doktore gradua izatea.
- c. Cambridgeko Unibertsitateko sail edo fakultate batean onartua izatea.
- d. Ingelesa jakitea.

Eskaerak aurkezteko epea:

2016ko azaroaren 21a arte (egun hori barne)

UPV/EHUko IRiek eskaerak aurkezteko prozedura:

Eskatzaileek UPV/EHUrekin lan harremanik izanez gero, egonaldiak dirauen artean kanpoan egoteko baimena edo lizentzia eduki beharko dute.

GARRANTZITSUA: Eskatzaileak berak aurkeztu behar du dokumentazioa epe barruan online aplikazioaren bidez, deialdiko 4. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Informazio gehiago:

http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/ayuda_subvencion/2016/ikercambridge/